

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN,
MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoetarako 2019ko deialdiko itxarote-zerrendan geratutakoei laguntzak emateko ebazpena, soberakinak egokitu direlako

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 eta 4. artikuluetan xedatutakoarekin ildotik, iragarki honen bitartez jakinarazten zaie interesdunei Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2019ko abenduaren 12an emandako ebazpena, zeinaren bidez Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko 2019ko laguntza-deialdiaren baitan itxarote zerrendan geratu ziren enpresei laguntzak ematea ebatzi baitzuen, soberakinak zeudelako. Hauxe da ebazpenaren edukia:

I. Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko martxoaren 29an egindako ohiko bilkuran onetsi zituen Gasteizko hirigunean ostalaritza alorreko enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdi publikoaren oinarriak (aurrerantzean, ostalaritzarako laguntzak), eta 2019ko apirilaren 24an argitaratu zituen ALHAOn (48. zk).

Dirulaguntza horien aurrekontua berrogeita hamar mila eurokoa (50.000,00 euro) zen, laguntzak emateko prozedura gisa norgehiagoka baliatuta, 2019ko ekitaldiko udal aurrekontuko 0822.4314.489.64 partidaren kontura.

II. Honakoa adierazi behar da ostalaritzarako laguntza horien inguruan:

1.1. Hogeita zazpi eskabide aurkeztu ziren epe barruan, eta horietatik hamaseik ez zituzten betetzen deialdiaren eskakizunak.

Hautatze eta Jarraipen Batzordeak 2019ko urriaren 18an egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu zituen eskabide horiek; betebeharrak betetzen zituzten egiaztatu eta aurkeztutako proiektuak balioetsi eta lehenetsi zirelarik, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, non betebeharrak ez betetzeagatik hamasei eskabide ukatzeko eta bost dirulaguntza emateko proposatzen baitzen, guztira 50.000,00 euro. Laguntza horiek agortu egiten zuten deialdira bideratutako zuzkidura ekonomikoa.

1.2. 2019ko urriaren 22an ebazpena eman zuen zinegotzi ordezkariak, non, beste kontu batzuen artean, eta deialdi honetako zuzkidura ekonomikoa agortuta eskakizunak betetzen zituzten hainbat proiektu laguntzarik gabe geratu zirenez, itxarote-zerrenda sortzea onetsi zuen, Sailak kudeatutako beste programetan saldoa soberan geratuz gero laguntza hauetan baliatzeko, guztia bertan ezarritako hurrenkeran:

Itxarote zerrenda			
Zenbakia	IFZ / NAN	Lortutako puntuazioa	Esleitzeko dagoen diru-laguntza
1	B95934758	56	10.000,00 euro
2	B01563980	55	12.000,00 euro
3	J01569136	49,25	2.902,96 euro
4	B01568104	40	12.000,00 euro
5	B01520832	27,5	6.902,66 euro
6	09414355H	17,75	2.752,13 euro
7	B01484674	3	6.026,23 euro

1.3. Merkataritza Zerbitzuko teknikariek txostena egin zuten 2019ko abenduaren 11n (dosierean jaso da), eta honela jasotzen da bertan:

“Eskualdeko plana - Udalaren ekarpena” 0823 2411 480 20 partidatik eratorritako 68.624,71 euro eta 16262910R NAN zenbakidunak aurkeztutako ukoari dagozkion 4.149,90 euroak — guztira 72.774,61 euro — bi dirulaguntza deialditako eskabideen ebazpenetan jasotako itxarote-zerrendetara bideratzea proposatzen da, hain zuzen ere Gasteizko udalerrian 2019an merkataritzaren eta zerbitzu pertsonalen alorreko enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiko itxarote-zerrendako eskabidetarako eta Gasteizko udalerrian ostalaritza-enpresa txikiak ezarri eta modernizatzeko laguntza ekonomikoen udal programaren deialdiko itxarote-zerrendako eskabideetarako”.

Horrenbestez, 68.624,71 euro handitzen da “denda txikientzako laguntzak” 0822.4314.489.64 partidako aurrekontua. Kopuru hori “Eskualdeko plana - Udalaren ekarpena” 0823 2411 480 20 partidatik eratorria da.

Hori dela eta, eta merkataritzako teknikariek txostenean adierazitakoarekin bat, honela esleitzen dira dirulaguntzak, zenbatekoak itxarote-zerrendako onuradunei esleituta.

Ostalaritza				
Zenbakia	IFZ / NAN	Esleitzeko dagoen diru-laguntza	Ordaintzeko proposamen berria	Esleitzeko dagoen diru-laguntza berria
1	B95934758	10.000,00 euro	10.000,00 euro	0,00 euro
2	B01563980	12.000,00 euro	12.000,00 euro	0,00 euro
3	J01569136	2.902,96 euro	2.902,96 euro	0,00 euro
4	B01568104	12.000,00 euro	12.000,00 euro	0,00 euro
5	B01520832	6.902,66 euro	6.902,66 euro	0,00 euro
6	09414355H	2.752,13 euro	2.752,13 euro	0,00 euro
7	B01484674	6.026,23 euro	4.790,08 euro	1.236,15 euro

III. 2019ko abenduaren 11n, eta deialdi honetako 6. oinarriari jarraiki (baliabide ekonomikoak), “denda txikientzako laguntzak” partidara gehitzen dira “Eskualdeko plana - Udalaren ekarpena” 0823.2411.480.20 partidako 68.624,71 euro.

IV. Hautatze eta jarraipen batzordea 2019ko abenduaren 11n bildu zen, eta 0823.2411.480.20 “Eskualdeko plana- Udalaren ekarpena” partidaren soberakina aztertuta, 68.624,71 euro itxarote zerrendara pasa dira deialdi honetako 6. oinarriaren haritik (baliabide ekonomikoak). Horrenbestez, 51.347,83 euro igo da deialdi honetako aurrekontua eta horrenbestez, berriz barematu da itxarote-zerrenda.

Halaber, baremazio berriak egin direlarik, 1.236,15 euro falta dira oraindik, eta itxarote-zerrenda berria egin d, agortu egin baita deialdiko zuzkidura.

Horrenbestez, proposamena Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari igortzea proposatzen da.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko ekainaren 21ean eskumenak eskuordetzeko hartutako erabakiarekin bat etorritik, Ekonomia Sustapenaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebaztea. Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik, hau ebatzi du Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak:

Ebazpena

Lehena. Onespena ematea Gasteizko hirigunean ostalaritza alorreko enpresa txikiak ezarri nahiz modernizatze laguntza ekonomikoak emateko udal programaren deialdiko itxarote-zerrendara berrogeita hamaika mila hirurehun eta berrogeita zazpi mila euro eta laurogeita hiru zentimo (51.347,83) gehitzeari.

Bigarrena. Laguntza horien zenbatekoa 2019rako onetsitako udal aurrekontuko “denda txikientzako laguntzak” 0822.4314.489.64 partidaren kontura jasota uztea, eta horiek ordaintzea onestea.

Hirugarrena. Soberakinen esleipen hau onestea, ostalaritzako deialdiko itxarote-zerrendan ezarritako hurrenkerari jarraiki:

Ostalaritza				
Zenbakia	IFZ / NAN	Esleitzeko dagoen diru-laguntza	Ordaintzeko proposamen berria	Esleitzeko dagoen diru-laguntza berria
1	B95934758	10.000,00 euro	10.000,00 euro	0,00 euro
2	B01563980	12.000,00 euro	12.000,00 euro	0,00 euro
3	J01569136	2.902,96 euro	2.902,96 euro	0,00 euro
4	B01568104	12.000,00 euro	12.000,00 euro	0,00 euro
5	B01520832	6.902,66 euro	6.902,66 euro	0,00 euro
6	09414355H	2.752,13 euro	2.752,13 euro	0,00 euro
7	B01484674	6.026,23 euro	4.790,08 euro	1.236,15 euro

Laugarrena. Ostalaritzarako laguntzen deialdi honetako zuzkidura ekonomikoa agortuta, eta betebeharrak betetzen dituzten zenbait proiektu laguntzarik gabe geratu denez, itxarote-zerrenda sortzea onesten da, ostalaritzako laguntzetarako deialdian bertan ezarritako hurrenkeran:

Zenbakia	IFZ	Esleitzeko dagoen diru-laguntza
1	B01484674	1.236,15 euro

Bosgarrena. Dirulaguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, laguntza horiek bertan behera utzi ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako laguntza itzultzeko eskatuko zaie.

Seigarrena. Ebazpen hau udalaren web-orrian eta ALHAOn argitaratzea, eta eskatzaileei jakinaraztea –ebazpenak administrazio-bidea agortzen baitu–, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dutela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 19an

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI